



Arartekoaren 2019R-2298-17 Ebazpena, 2019ko otsailaren 26koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpena.

Aurrekariak

1. Herritar batek, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular denak, Arartekora jo zuen esku har zezan eskatzeko, ez zegoelako ados Lanbidek emandako ebazpen batekin.

Zehatz-mehatz esanda, 2016ko azaroaren 15ean Lanbideko zuzendari nagusiak kexagileari eskatu zion 12.344,0 euro itzul zitzaion eta 2014ko ekainaren 24tik 2015eko uztailaren 31ra bitartekoa zen. Diru-sarrerak bermatzeko errentagatik 6.285,73 euro erreklamatzen zitzaizkion eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa 6.058,33 euro.

Ebazpenean jasotako arrazoiak honako hauek ziren:

- *“Titularra bere/besteren kontura lanean”*
- *Beste arrazoi batzuk EPO”*

Horren aurretik, 2016ko uztailaren 19an, gertaera horrek berak kexagileari etxebizitzarako prestazio osagarria etetea ekarri zuen.

Hala eta guztiz ere, Lanbideren eskutik bajaren egoera ezagutu bezain laster, kexagileak “Etxebide” Babestutako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta ematea berriz eskatu zuen.

2. Kexagilea etxebizitzarako prestazio osagarri gisa erreklamatutako zenbatekoarekin ados ez zegoenez, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri zuen. Idazki hartan kexagileak azaldutakoaren arabera, “Etxebide” Babestutako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta ematea 2013ko maiatzean eskatu zuen eta baja emanda zegoela jakin zuen 2016. urtean Lanbideko zuzendari nagusiak entzunaldiaren izapidea bidali zionean. Ordura arte, ez zekien ezer. Nolanahi ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren ondorioz bidegabe jasotako zenbatekoak (6.285,73 euro) itzultzea onartu zuen.

Halaber, Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak egindako txostena entregatu zuen. Horren bidez, 2016ko maiatzaren 26an eskaera berria formalizatu zuenetik inskribatua zegoela egiaztatzen zen.





3. Lanbidek errekurtsio hori ezetsi zuen 2017ko uztailaren 26ko ebazpenaren bidez. Ildo horretan, Lanbideko zuzendari nagusiak esan zuen arrazoi hau zela-eta hartu zuela erabaki hori:

- *"El interesado no ha aportado el motivo de no haber estado inscrito como demandante de vivienda en alquiler en el servicio de Etxebide del Gobierno Vasco pese a que le fue requerido el trámite de audiencia dictado por el Director de Formación para el Empleo y Garantía de Ingresos de Lanbide el 26 de mayo de 2016 (...) En consecuencia, (...) don (...) ha percibido indebidamente la PCV durante el periodo de 24 de junio de 2014 al 31 de julio de 2016."*

4. Azaldutako kexa behar bezala izapidetzeko, Arartekoak lankidetzeta-eskaera bat bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari. Horren bidez, eskatu genion azaldu zezan zergatik adierazi zuen Lanbidek interesdunak 6.058,33 euro itzuli behar zituela etxebizitzarako prestazio osagarri gisa.

Gainera, Arartekoak "Etxebide" Babestutako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan bajei zegokienez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ¹ egiten zituen jakinarazpenei buruz zenbait aurretiazko gogoeta bidali zizkion sailari.

5. Informazio-eskaerari erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiaren idazki bat jaso genuen erakunde honen erregistroan. Horren bitartez, jakinarazi zigun kexagileari, prestazioak bidegabe jaso zituela-eta, guztira 12.344,06 euro itzularazteko erabakiari eutsiko ziola. Hau da, bidegabe jaso zituen 6.285,73 euro diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa eta 6.058,33 euro etxebizitzarako prestazio osagarriagatik. Dena den, Lanbideko zuzendari nagusiak lankidetzeta-eskaeran Arartekoaren gogoetei buruz ez dio ezer. Bi prestazioak eteteko ebazpenean erabilitako arrazoiak errepikatuzera mugatu da.

6. Beraz, uste dugunez beharrezko egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 32.1. artikulua etxebizitzarako prestazio osagarria onartzeko hala xedatzen du c) atalean:

¹ Gaur egun, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, 25/2016 Dekretuaren arabera, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (EHAA, 2016ko azaroaren 28koa, 226. zk).



- *“Etxebizitza Sailaren Etxebide zerbitzuan alokairuko etxebizitza baten eskatzaile gisa izena emanda edo izena emateko eskaera eginda egotea (...)”.*

lido beretik doa etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 5.1. c) artikulua.

2. Aurrekoaren harira, espedientean jasotako dokumentazioari erreparatuta, Arartekoak egiaztatutakoarekin bat, kexagileak “Etxebide” Babestutako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eskaera 2013ko maiatzean egin zuen. Dena den, kexagileak berriz azpimarratzen du orduan Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila zenak ez ziola jakinarazi berari izen-ematea ezestearen inguruko entzunaldiaren izapidea, ezta ebazpena ere.

Are gehiago, Arartekoak egiaztatutakoarekin bat, kexagileak bajaren egoera 2016ko maiatzaren 26an Lanbidek entzunaldiaren izapidea jakinarazi arte ez zuen ezagutu. Nolanahi ere, hori 2016ko uztailaren 19an bi prestazioak etetearekin eta, ondoren, 2016ko azaroaren 15ean bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko prozedurarekin amaitu zen.

Zerbaitegatik, kexagileak “Etxebide” Babestutako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja-egoera jakin zuen bezala laster, bere bulegora hurbildu zen informazioa jasotzera. Horren erakusgarri, izen-ematearen eskaera, 2016ko maiatzaren 26koa, behin betiko alta emanda amaitu zen.

3. Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du Eusko Jaurlaritzako orduko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak² banaka jakinarazi behar zituela “Etxebide” Babestutako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan gertatzen ziren gorabeherak. Zehazki, [Arartekoaren otsailaren 25eko 3/2016 Gomendio Orokorren](#)³ ondorioetako bat izan zen “Etxebide” Babestutako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja ebazpenen eta izen-emate ukapenen jakinarazpenak banaka egin behar zirela, orduan aplikatu zitezkeen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzkoaren, 59.1 artikuluan agindutakoari jarraituz.

Gainera, aipatutako ikuspegia ondoren errepikatu da honako agiri honetan: [Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen](#)⁴.

² Gaur egun, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila da hori, hala xedatzen baitu Lehendakariaren azaroaren 26ko 25/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioeko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak (EHAA, 226. zk., 2016ko azaroaren 28koa).

³ **Arartekoa.** Arartekoaren 3/2016 Gomendio Orokorra, otsailaren 25ekoa, Babestutako etxebizitza eskatzaileen erregistroko bajak norbanakoari jakinarazteko beharra, etxebizitza duina edukitzeko eta gizarte bazterketarako arriskua saihesteari begirako prestazio ekonomikoetarako eskubide subjektiboan duen eraginagatik. [Linean eskuragarri]: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3871_1.pdf

⁴ **Arartekoa.** Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio





Arartekoaren iritziz, administrazio egintza bat baliozkoa ez izateak, esate baterako ez delako behar bezala jakinarazi Etxebiden izena emateko eskaera ukatu izana edo erregistro horretan baja eman izana, adierazitako ukapen edo erregistro baja horri zuzenean lotutako gainerako administrazio egintzen (etxebizitzarako prestazio osagarria etetea, iraungitzea edo hura ez berritzea, adibidez) baliozkotasunari eragiten dio.

Ezin da ahaztu administrazioarekiko auzien Donostiako 1. epaitegiaren 2017ko apirilaren 12ko 118/2016 Epaia, zuzenbideko hirugarren oinarrian, hauxe esan zuela:

"Es por todo ello que teniendo en cuenta el principio pro administrado que debe regir en las relaciones para con el ciudadano, no podía acudir a un criterio formalista teniendo hecha la notificación con la publicación 'general' de la Resolución de 1 de abril de 2014. Generándose indefensión a la recurrente por falta de notificación correcta."

4. Etabaidatutako alderdi horri dagokionez, Lanbidek instrukzio bat onartu zuen 2016ko abuztuaren 1ean; testu horretan, honako hau ezartzen da:

- *"(...) el modo de notificación de requerimientos/resoluciones contemplado en la normativa de vivienda (mediante un Tablón) está siendo cuestionado tanto por los Tribunales como por el Ararteko debido al desconocimiento y posible indefensión que genera en los demandantes de vivienda."*

Por tanto, y mientras desde Etxebide solucionan las dudas surgidas en el método de notificación empleado, se ha decidido no generar cantidades a regularizar por no estar dados de alta en Etxebide ya que se considera que los demandantes pueden no haber tenido conocimiento tanto de los procedimientos iniciados en Etxebide como de las resoluciones de los mismos."

Amaitzeko, hauxe adierazten du instrukzioak:

- *"En ningún caso se reclamarán cantidades desde la fecha en que la persona cayó en baja".*

Kasu hontan, erakunde honek dakiela, jakinarazpena ez zen egin orduan aplikatu zitekeen Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.1. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017. 5.3.5. puntua, irisgarria honako helbidean: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf

5. "Etxebide" Babestutako Etxebizitza Eskaintzaileen Erregistroan bajatik (2013ko maiatza) etenaldira eta, gero, bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko prozedurara (2016ko azaroa) arteko denboran hurrengo kasua oso garrantzitsua da: [Čakarević Kroaziaren aurka](#)⁵. Zehazki, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ustezko bat izan zuen aztergai eta horren arabera, Kroaziako administrazioak langabeziagatik prestazioa ordaintzen jarraitu zuen hasieran emandako legezko epetik harago.

Hala eta guztiz ere, gertakari horrengatik Kroaziako administrazioak, akatsaz ohartarazi zenean, bidegabe ordaindutako zenbatekoak itzultzea eskatu zuen⁶. Hain zuzen, Kroaziako administrazioak gutxi gorabehera hiru urteko luzapendenboraldian bidegabe aberastean justifikatu zuen bere jarduera, hori izan baitzen akatsez langabeziagatik prestazioa ordaindu zuen aldia. Zehatz-mehatz esanda, erreklamaturako aldia 1998ko ekainaren 10etik 2001eko martxoaren 27ra doa.

Barne auzitegiek babesik ez eskaintzearekin ados ez zegoenez, kexagileak Giza Eskubideen Europako Auzitegian egin zuen erreklamazioa honako hau oinarri hartuta: [oinarrizko giza eskubideak eta askatasunak babesteko hitzarmenaren 1. protokolo 1. artikulua](#)⁷. Zehazki, berak azaldutakoaren babesean, Kroaziako enplegu zerbitzuaren jarduerak bere jabetzarako eta bakez gozaten jarraitzeko legezko itxaropenerako eskubidea urratu zuen.

Testuinguru honetan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak emandako epaian ebaluatu zuen Kroaziako administrazioak akatsez ordaindutako dirua itzultzeko orduan 1. protokoloaren 1. artikuluko eskakizunak betetzen al ziren.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak zera adierazi zuen:

- *"...the Court considers that, taking into account in particular the nature of the benefits as current support for basic subsistence needs, the question of whether the situation was capable of giving rise to a legitimate expectation that the entitlement was duly in place must be assessed with a view to the situation prevailing at the time when the applicant was in receipt of the payments and consumed the proceeds."*⁸

Laburbilduz, auzitegiak Kroaziako administrazioak esku hartzean legezko helburuaren bila zebilen eta hori neurrizkoa al zen zehazten du.

⁵ **Giza Eskubideen Europako Auzitegia**.. 2018ko apirilaren 26ko epaia. Čakarević kasua Kroaziaren aurka. *Application no. 48921/13*. [Linean eskuragarri: <http://hudoc.echr.coe.int/eng?i=001-182445>]

⁶ 19.451,69 kuna kroaziar erreklamatzeko zitzaizkion, hau da, gutxi gorabehera 2.600 euro.

⁷ <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1999-10148>

⁸ Čakarević Kroaziaren aurka... *op.cit.* 64. atala Itzulpena honakoa izan liteke: "...Auzitegiaren ustez, bizitzeko oinarrizko beharrei egun laguntzeko prestazioen izaera kontuan hartuta, legezko konfiantza zegoen eskubidea behar bezala zehaztua zegoela pentsatzean. **Nolanahi ere, hori eskatzaileak ordainketak jaso eta diru-sarrerak kontsumitzen zituen uneko egoerara jo behar da ebaluatzeko**".

Argitzen duelako, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak baieztatutakoa aipatu behar da:

*"...the Court considers that an individual should in principle be entitled to rely on the validity of a final (or otherwise enforceable) administrative decision in his or her favour, and on the implementing measures already taken pursuant to it, provided that neither the beneficiary nor anyone on his or her behalf has contributed to such a decision having been wrongly made or wrongly implemented. Thus, while an administrative decision may be subject to revocation for the future (ex nunc), an expectation that it should not be called into question retrospectively (ex tunc) should usually be recognised as being legitimate, at least unless there are weighty reasons to the contrary in the general interest or in the interest of third parties"*⁹

Azaldutakoa ikusirik, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazi du hainbat gorabehera dagoela 1. protokoloaren 1. artikuluan babesten duen kexagilearen itxaropena onartzeko. Zehazki, honako hauek aipatzen ditu:

- *"Firstly, there is no indication or even allegation that the applicant had in any way contributed to the impugned situation, namely that the disbursement of the benefits had been continued beyond the applicable statutory time-limit.*

(...)

Secondly, the applicant's good faith in receiving the contested unemployment benefits is not contested.

(...)

Fourthly, there was a long lapse of time, amounting to over three years, after the expiry of the statutory time-limit during which the authorities failed to react while continuing to make the monthly payments.

- *The Court finds that these circumstances were capable of inducing in the applicant a belief that she was entitled to receive those payments.*¹⁰

⁹ Čakarević Kroaziaren aurka... *op.cit.* 56. atala Itzulpena honakoa izan liteke: "...Auzitegiaren iritziz, hasieran, partikular batek bere aldeko administrazio-erabaki irimoaren (edo betearazlearen) baliozkotasuna eta horren babesean, jada onartutako gauzatze-neurriak argudiatzeko eskubidea du, **betiere onuradunak edo bere izenean inork erabakia oker hartzen edo behar bezala ez betetzen lagundu ez badu**. Beraz, administrazio-erabakia etorkizunean ezestearen araberakoa izan daitezkeen bitartean (ex nunc), **itxaropena atzera eraginez ezin daiteke zalantzan jarri (ex tunc)** eta legezkotzat jo behar da, interes orokorrari edo hirugarrenen interesei begira, kontrakoa justifikatzen duten arrazoiak daudenean izan ezik".

¹⁰ Čakarević Kroaziaren aurka... *op.cit.* 59tik 63ra bitarteko atalak. Itzulpena honakoa izan liteke: "**Lehenik eta behin, kexagileak kontra egindako egoerara iristen laguntzeko eta prestazioak legezko epe aplikagarritik urrunago kobratzen jarraitzeko ez dago arrastorik, ezta alegaziorik ere.** (...) Bigarrenez, kontra egindako langabeziaren prestazioak kobratzean **kexagilearen fede ona ez da zalantzan jartzen.** (...) Laugarrenez, **denboraldi luzea izan zen, hiru urte baino gehiago legezko epea amaitu ondoren, eta agintariek ez zuten erantzun hilean ordainketak egiten**

Laburbilduz, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorioztatutakoarekin bat etorritik, kexagileari eskatutako babesa eman behar zaio, bidegabe jasotako zenbatekoak sortzean ardura administrazio-agintaritzari baitzegokion soil-soilik. Izan ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak honako hau dio:

*“As to the conduct of the authorities, the Court notes at the outset that, in the context of property rights, particular importance must be attached to the principle of good governance. In the instant case, the Court considers that the authorities failed in their duty to act in good time and in an appropriate and consistent manner (...) no responsibility of the State for creating the situation at issue was established, and the State avoided any consequences of its own error. The whole burden was placed on the applicant only (...) As to the applicant’s personal situation, the Court notes that the sum she received on account of unemployment benefits is a very modest one and as such has been consumed for satisfying the applicant’s necessary basic living expenses, that is to say for her subsistence.”.*¹¹

6. Arartekoak gogorarazi du epaian adierazitako guztiak aginte publikoan behartzen dituela, nazioarteko itun eta akordioen babesean. Horiek lege antolamendua osatzen dute (Konstituzioaren 96. artikulua) eta Konstituzioak onartutako oinarritzko eskubideen interpretazioari buruz berri ematen dute (10.2. artikulua).

Are gehiago, jurisprudentziaren ikuspegi hori jada erantsi da Bartzelonako 26. lan-arloko epaitegiak 2018ko uztailaren 5ean emandako epaian¹².

Zehazki, epaitegiak Giza Eskubideen Europako Auzitegiak babesatutako tesia onartzen du eta berriaz partekatzen du honakoa:

“...los errores imputables exclusivamente a las Autoridades estatales no deberían subsanarse a expensas únicamente del interesado (...) Y que debe tenerse presente, especialmente, si la Administración ha cumplido con un esencial principio de buena gobernanza, llegando a la conclusión de que (...) la Administración no cumplió su deber de actuar a tiempo y de manera apropiada y coherente, no considerando proporcionado que se reclame a (...)”

ziren bitartean. Auzitegiaren ustez, egoera horren ondorioz, kexagileak ordainketak jasotzeko eskubidea zuela pentsa zezakeen”.

¹¹ Čakarević Kroaziaren aurka... *op.cit.* 84. 86. eta 88. atala. Itzulpena honakoa izan liteke: “*Agintarien portaerari dagokionez, auzitegiak, lehenik eta behin, gogorarazi du jabetzaren eskubideen esparruan garrantzi berezia eman behar zaiola gobernamendu onaren printzipioari. Kasu honetan, auzitegiaren iritziz, agintariak garaiz, egokiro eta koherentziaz jardutearen eskakizuna ez zuten bete. (...) Egoera eratoritzean Estatuaren erantzukizunik ez zen zehaztu eta Estatuak bere akatsaren edozein ondore saihestu zuen. Zama guztia bakarrik eskatzaileari zegokion. Kexagilearen egoera pertsonalari dagokionez, auzitegiaren esanetan, langabeziagatik prestazio gisa jaso zuen zenbatekoa oso xumea da eta, beraz, kexagilearen bizian oinarritzko gastuak estaltzeko, hau da, biziraupenerako erabili da”.*

¹² **Bartzelonako 26. lan-arloko epaitegia.** 2018ko uztailaren 5eko epaia. Roj: Auzitegi Gorenaren 3749/2018 Epaia, ECLI: ES:JSO:2018:3749. [Linean eskuragarri: <http://www.poderjudicial.es/search/contenidos.action?action=contentpdf&database=AN&reference=8540613&links=&optimize=20181022&publicinterface=true>]



la totalidad de las prestaciones indebidamente percibidas (...), sin establecer responsabilidad alguna de la Administración."

Gainera, epaileak emandako argudioetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 110 artikulua haxe aurreikusi du:

- *"Kapitulu honetan xedatutako berrikuspen-ahalmenak baliatzerik ez dago baldin eta, akzioak preskribatu direlako, denbora igaro delako bestelako gorabeherengatik, ahalmen horiek baliatzea ekitatearen, fede onaren, partikularren eskubideen edo legeen aurkakoa bada".*

7. Arartekoak ezin dezake baztertu erabakia hartu zenean Etxebizitza Sailburuordetza Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean zegoela. Horregatik, harrigarria da etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako prestazioengatik 6.058,33 euro itzuli behar izana. Nolanahi ere, sailaren barruan koordinazio egokia balego, egoera antzemango litzateke eta zuzentzeko prozedura hasi ere bai. Hala, bi urtez baino gehiagoz kexagileak prestazioa jasotzea saihestuko litzateke.
8. Aurrekoaren harira, Arartekoak kexa-espedita hau izapidetu ondoren, kexagileak eskatutako dokumentazioa epearen barruan aurkeztu zuela egiaztatu du. Horrez gain, etxebizitzarekin zerikusia zuten beharrak justifikatu zituen. Zehatz-mehatz esanda, "Etxebide" Babestutako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eskaera entregatu zuen, etxebizitzarako prestazio osagarria onartzeko eskaera izapidetu zezaten beharrezko informazio guztiarekin batera.

Bestalde, Arartekoak ziurtatu du kexagileak "Etxebide" Babestutako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja-egoera Lanbidek bi urte geroago entzunaldiaren izapidea jakinarazi arte ez zuela ezagutu.

Are gehiago, Arartekoak egiaztatutakoarekin bat etorriz, baja ezagutu bezain laster, izen-emate berriaren eskaera formalizatzerara joan zen eta azkenean erregistroan alta eman zitzaion.

Arestian azaldutakoa ikusirik, Arartekoaren iritziz kexagileak ez zuen gertakaririk ezkutatu, ezta akatsik izan ere, bidegabe jasotzean oinarrituta, proportzioz etxebizitzarako prestazio osagarri gisa 6.058,33 euroko erreklamazioa justifikatzeko.

9. Azkenik, kexagileak esan du ez dakiela zehazki, prozeduraren ezein momentutan, nola kalkulatu den 6.058,33 euroko zenbatekoa, etxebizitzarako prestazio osagarri gisa erreklamatzeko zaiona; neurri handi batean, hilabete askotan etxebizitzarako prestazio osagarriaren gehieneko zenbatekoa (250 euro) jaso duelako.

Alde horretatik, Arartekoari egokia iruditu zaio administrazioarekiko auzien Gasteizko 3. epaitegiaren otsailaren 6ko 46/2018 Epaian jasotako gogoetak jakinaraztea:





- *Se viene observando de un tiempo a esta parte como Lanbide reclama cantidades como ingresos indebidos, cuyo origen se encuentra en una resolución o una causa que dista prácticamente el tiempo de prescripción de cuatro años previsto, para la recuperación de ingresos indebidos.*

La distancia temporal entre el origen del reintegro y la incoación de este, con mayor razón, en supuestos como el presente en el que la causa por la que se declara el ingreso indebido, ni siquiera hunde sus raíces en una resolución, exigen una mayor precisión en la exposición de las operaciones realizadas para el cálculo de la cantidad a reintegrar (...)

Y la facilidad probatoria para Lanbide es total, frente a la mayor dificultad que tiene el administrado para la verificación de los cálculos que permitan conocer la exactitud de la cantidad que se les reclama, contenido esencial en definitiva de la resolución de reintegro, máxime cuando hunde sus raíces en una resolución previa de la que trae causa y que resulta en la mayoría de supuestos inatacable. Esto hace que el contenido esencial de la resolución de reintegro sea la cantidad y por ello es necesario conocer su origen."

Azaldutakoa gorabehera, bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzea erreklamatzeko duen ebazpenak zorraren kalkulua eta berariaz sortu zen hilabetea ez ditu zehazten. Hala, kexagilea babesik ezaren egoeran dago, bi urte baino lehenago aurretik izandako zorraren jatorria ez baitu ezagutzen.

Hori guztia dela-eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egin nahi du:



GOMENDIOA

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen dio Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpena, 6.058,33 euro itzultzea eskatzen duena, ondorerik gabe uztea, egiaztatuta gelditu baita "Etxebide" Babestutako Etxebizitza Eskaintzaileen Erregistroan izen-ematea ezesteko jakinarazpena ez zela pertsonalki gauzatu, orduan aplikagarria zen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 59.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Beraz, kontuan hartu beharko zenuke Lanbidek 2016ko abuztuaren 1ean onartutako instrukzioa eta baliogabetu 2016ko azaroaren 15eko ebazpena, etxebizitzarako prestazio osagarri gisa 6.058,33 euro itzuli behar zituela eskatzen zuena.

Nolanahi ere, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gogorarazten dio une oro jakinarazi behar duela nola kalkulatu dituen erreklamaturako zenbateko zehatzak.

